

Liburutegiek astean ospatuko dute liburuaren eguna, azoka eta irakurketekin

JON BEREZIBAR

Eguna, modu ofizialean, atzo izan bazen ere, ibarreko herri askotan oraingo astean zehar hainbat ekintza gertatu dituzte liburutegiak ezagutzera eman eta irakurtzeko zaletasuna herritarren artean pizteko. Ospakizunekin aurreratu zirenak Bergara eta Elgetako liburutegietakoak izan ziren. Elgetan egubakoitzean atera zuten liburutegia kalera eta Bergaran gaur egiten dabilzan neurrian, zapatuan ere ipini zituzten liburuak udaletxeko arkupean. Mila Agirrezabal arduradunak esan bezala, "irakurle nagusiagoengana gerturatzeko aukera da hau, batzuk liburutegia umeendako besterik ez dela uste dute-eta". Zapatu goiza, antza, nahiko ondo joan zitzairen bergararrei, 15 bazkide berri egin zituzten-eta. Ekintza potoloenak, baina gaurtik aurrera egingo dituzte, batez ere Arrasaten eta Eskoriatzan.

Azokak eta irakurketak aste honetan

Lehenengoan erabilitako liburuaren azoka egingo dute Monterron jauregian. Hala, egoera txarrean dauden liburuak, azken lau edo bost urteetan gutxi irakurritakoak edo herritarrek emandakoak jarriko dituzte azoka horretan Arrasateko liburutegiko arduradunek.

Bazkideek, gainera, horietako bi liburu eramanez ahal izango dituzte opari. Horrez gainera, hamar euskal idazleren gomendioekin doan banatzeko gida prestatu dute liburutegiko arduradunek.

Eskoriatzari dagokionez, zapatuan izango da azoka: liburu bat eramanez gero, bi hartu ahal izango dituzte trukean herritarrek. Era berean, bai Eskoriatzan zein Oñatin haurrendako irakurketa bereziak antolatu dituzte egun bat baino gehiagotan.

Aramaion ere bigarren eskuko azoka dabilza prestatzen zapaturako.

Egitaraua

BERGARA

- **GAUR, ASTELEHENA, 24**
9:00etatik 21:00etara:
liburutegia herriko plazara aterako dute

ARRASATE

- **GAUR**
Liburu azoka eta giden banaketa liburutegian

OÑATI

- **ORAINGO ASTEAN**
17:30etatik 19:30etara:
Christian Anderseni buruzko erakusketa
- **MARTITZENA, 25 eta EGUENA, 27**
18:30: Aitona Balentin ipuinaren kontaketa

ESKORIATZA

- **MARTITZENA, 25 eta EGUENA, 27**
Irakurketak Haurtxotekan
- **ZAPATUA, 29**
Liburu azoka: 1 ekarri - 2 eruen eta irakurketa eleanitzak